



AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2016ko martxoaren 8a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:15 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:15

BERTARATUAK:

Alkatea

Jose Angel Zaldua Iparraguirre

Zinegotziak

Lourdes Salsamendi Goñi, Angel del Hoyo Bravo, Aitziber Campos Morey, Eugenio Cotado Iturain, Elixabete Bello Martija, Emeterio Iribar Sorazu, Bixente Lasa Karrikaburu, Gotzon Igoa Agirrezabal, Aizpea Ubegun Manterola, Miriam Uranga Egurza, Jose Angel Iparraguirre Alberdi eta Ana Priede Merchan.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Aizpea Ubegun Manterola Orioko Udaleko zinegotzi izendatua izan dela adierazten duen kredentzialaren berri ematea eta hark zinegotzi kargua jabetzan hartzea, egoki bada; Aizpea Ubegun Manterola EUSKAL HERRIA BILDU (EHBildu) koalizio politikoko zinegotzi izango da, bere karguari uko egin dion Amagoia Iribar Manzisidorren ordeaz.



- 2.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren 2015eko abenduaren 30eko ezohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
- 3.- Onartzea, egoki bada, Udaleko batzorde informatzaile iraunkorren osaketa aldatzea.
- 4.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udalaren 2016ko Aurrekontu Orokorra eta aurrekontuaren exekuzioari buruzko udal araua
- 5.- Onartzea, egoki bada, Udalaren 2016ko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Euskadiko Autonomia Erkidegoko administrazioaren eta Orioko Udalaren artean sinatuko den elkarlanerako hitzarmena, trafiko-zigorretarako prozedurari dagozkion egintzak bitarteko elektronikoen bidez egiteari buruzkoa.
- 7.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udaleko kontratazio-mahaia osatzeko proposamena. Mahaia 2019an bukatzen den agintaldi honetarako osatuko litzateke, udalbatzar berria osatu bitartean.
- 8.- Berrestea, egoki bada, otsailaren 26ko 71/2016 alkate-dekretua, udal kanpineko 2016ko tarifak biribiltzea onartzen duena.
- 9.- Onartzea, egoki bada, EUDELeK bidalitako adierazpen instituzional bat, datorren martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Egunaren ospakizunari buruz.
- 10.- Onartzea, egoki bada, Orioko Xaltxerak elkarteak aurkeztutako mozioa, Udalaren atxikimendua eskatuz emakumeekin eta herri kurduarekin.

Esan-eginak

1.- AIZPEA UBEGUN MANTEROLA ORIOKO UDALEKO ZINEGOTZI IZENDATUA IZAN DELA ADIERAZTEN DUEN KREDENTZIALAREN BERRI EMATEA ETA HARK ZINEGOTZI KARGUA JABETZAN HARTZEA, EGOKI BADA; AIZPEA UBEGUN MANTEROLA EUSKAL HERRIA BILDU (EHBILDU) KOALIZIO POLITIKOKO ZINEGOTZI IZANGO DA, BERE KARGUARI UKO EGIN DION AMAGOIA IRIBAR MANZISIDORREN ORDEZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



Idazkariak hartzen du hitza eta adierazten du Aizpea Ubegun Manterolak eginak dituela bateraezintasun arrazoiei buruzko eta jarduerari buruzko aitorpena eta ondasunen aitorpena. Beraz, legearen arabera, karguari dagozkion betebeharrak fideltasunez betetzearen agindu edo zina aldez aurretik eginda, Aizpea Ubegun Manterolak Orioko Udaleko zinegotzi kargua hartzen du, EUSKAL HERRIA BILDU koalizio politikoaren izenean. Udalbatzakideek ongiatorria egiten diote.

2.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN 2015EKO ABENDUAREN 30EKO EZOHICO BILKURAKO AKTAREN ZIRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira HAMAHIRU BAIEZKO BOTO; gehiengo absolutua, beraz]:**

ONARTZEA udalbatzarrak 2015eko abenduaren 30ean egindako ezohiko bilkurako akta.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALEKO BATZORDE INFORMATZAILE IRAUNKORREN OSAKETA ALDATZEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Kultura, Turismo eta Euskara batzorde informatzailea Kultura eta Turismo batzorde informatzailea izango da aurrerantzean; bestalde, Obra, Zerbitzuak eta Hezkuntza batzorde informatzailea Obra, Zerbitzuak, Hezkuntza eta Euskara batzorde informatzailea izango da. Lehenbizikoaren burua Lourdes Salsamendi Goñi izango da, orain arte bezala, eta bigarrenaren buru, berriz, Aitziber Campos Morey.

EHBildu talde politikoaren bozeramaile Emeterio Iribarrek hartzen du hitza eta adierazten du kargua hartu berri duen Aizpea Ubegun Manterola zinegotziak Amagoia Iribar Manzisidor zinegotzi-ohiaren tokia hartuko duela udal batzorde informatzaileetan.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira HAMAHIRU BAIEZKO BOTO; gehiengo absolutua, beraz]:**

ONARTZEA Udaleko batzorde informatzaile iraunkorren osaketa aldatzea, goian azaldutako terminoetan.



4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN 2016KO AURREKONTU OROKORRA ETA AURREKONTUAREN EXEKUZIOARI BURUZKO UDAL ARAUA

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 2016ko aurrekontuaren eta horren exekuzioari buruzko udal arauaren berri jasotzeaz gain, udalbatzarrak beste bi dokumentu hauen berri ere jasotzen du: idazkari-kontu-hartzaileak egindako aurrekontu-egonkortasuneko, iraunkortasun finantzarioko eta gastuaren erregelako helburuak betetzeari buruzko txostena, eta Orioko Udalak ematen dituen diru-laguntzen erregimen juridikoa arautzen duen udal ordenantza.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2016ko otsailaren 29an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldia (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Campos (EAJ), Cotado (EAJ), Bello (EAJ), Uranga (Orain), Iparragirre (Orain) eta Priete (PSE-EE-PSOE), guztira **BEDERATZI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Emeterio Iribar (EHBildu), Lasa (EHBildu), Igoa (EHBildu) eta Ubegun (EHBildu), guztira **LAU KONTRAKO BOTO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Udalaren 2016ko Aurrekontu Orokorriari; aurrekontuaren laburpena, kapituluka, honako hau da:

ORIOKO UDALAREN AURREKONTU PROPIOA

SARREREN EGOERA

Kapituluak	Izendapena	Euroak
1	Zerga zuzenak	1.190.300
2	Zeharkako zergak	20.000
3	Tasak eta bestelako sarrerak	1.701.343
4	Transferentzia arruntak	3.807.836
5	Ondarezko diru-sarrerak	186.150
6	Inbertsio errealeen besterentzea	0
7	Kapital transferentziak	58.831
8	Finantza aktiboak	0
9	Finantza pasiboak	0
GUZTIRA		6.964.460



GASTUEN EGOERA

Kapituluak	Izendapena	Euroak
1	Pertsonaleko gastuak	2.958.704
2	Ondasun arrunten erosketak	2.720.135
3	Finantzaketa gastuak	0
4	Transferentzia arruntak	1.062.863
6	Inbertsio errealak	219.758
7	Kapital transferentziak	3.000
8	Finantza aktiboak	0
9	Finantza pasiboak	0
GUZTIRA		6.964.460

2.- ONARTZEA Udalaren aurrekontu propioa exekutatzeko udal araua, 2016. urteari dagokiona, Udalak ematen dituen diru-laguntzen erregimen juridikoa arautzen duen ordenantza orokorrari buruzko eranskinarekin.

3.- JENDAURREAN JARTZEA Orioko Udaleko 2016ko aurrekontu orokorra, aurrekontu propioa biltzen duena, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 112.3 artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15.1 artikuluan ezarritakoa betez; jendaurrean jartzea honako arauen arabera egiten da:

a) Ikusgai dagoen tokia: Udaleko Idazkaritza-Kontu hartzailetzan.

b) Espedientea aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteke epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita (iragarkia jarriko da, baita ere, iragarki taulan eta udaletxeko ohiko tokietan).

c) Erreklamazioak aurkezteke aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoia: Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.2 artikulua zehazten dituenak.

e) Aurkezteke bulegoa: Udaletxeko sarrera erregistroa, bulego orduetan. Astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.



f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurrean erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, aipatutako Aurrekontu Orokorra onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Aizpea Ubegun Manterola zinegotziak hartzen du hitza, EHBilduren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela honako arrazoiengatik (hitzez hitz jasota):

2016ko aurrekontuak ez onartzeko ditugun arrazoiak:

1.- Aurrekontuak lantzeko burutu den prozesua desegokia izan delako.

- *2015eko abenduaren 28an korreo bidez jaso genuen aurrekontuen zirriborroa, bidezkoa eta beharrezkoa zen honen azalpenak ematea Ogasun batzorde batean eta hori ez da gertatu.*
- *Ez da batzorde ezberdinetan lantzeko aukerarik eman eta gehiago esango dugu: ez da inolako koordinazio lanik egin batzorde buru eta teknikariekin.*
- *Zer esan herritarren eta herri eragileek ekarpenak jasotzeko egin den saiakeraz? Hutsaren hurrengoa.*
- *Aurrekontuak diktaminatzeko bi bilera egin dira (lehenengoa ia bi hilabetera), bakoitzak lau orduetik gorako iraupenekin. Aurrez alkatetzatik behar den modura landuta etorri izan balira, denbora erdia nahikoa izango zen.*
- *Guk egindako proposamenei buruz, besteren artean:*
 - *Herriko egoera sozialaren diagnosi azterketa egitea.*
 - *Birtziklapen kanpaina egitea eta hondakinen mahaia martxan jartzea.*
 - *Irigarritasun aldetik Salatxo aretokoa gauzatzea.*
 - *San Juango urak berreskuratzea iturri bat jarritz.*
 - *Parke estalia.*
 - *Xaloe atzeko parkearen eta saskibaloi pistaren egoera hobetzea.*
- *Hitz asko eta konpromiso formalik EZ, hori ez zaigu iruditzen serioa denik.*



- Azken orduan informatuak izan gara bai zinegotzi liberatuen soldata jaitsieraz; pozten gara bereziki beste alderdi guztiek egindako presioaren ondorio bat izan delako.

2.- Aurrekontu prekarioak direlako.

- Prekarioak norabiderik gabeko aurrekontu batzuk direlako. Ingurumen politika, birziklatzea eta hondakinak, ongizatea, irisgarritasuna, zerbitzuak... ez dago legealdira begira beharrezkoa den planik.
- Prekarioak, martxan dauden ekimenak moteltzearekin espekulatu egiten delako. "Kaleak oso zikinak daude" esaten zen, duela 10 hilabete prest zeuden kale garbitasuneko pleguak eta jadanik aspaldi egon behar zuten adjudikatuta. Bitartean horretarako jarritako diruak beste gastuetarako erabiltzen dira.
- Prekarioak aurrekontu hauek behar duten babesa lortu ahal izateko, hemendik beste bi astera lehen kreditu aldaketa izango dutelako.

Miriam Uranga zinegotziak hartzen du hitza, Orainen izenean, eta adierazten du bere talde politikoak aldeko botoa eman diola 2016ko aurrekontuaren onarpenari, honako arrazoiengatik (hitzez hitz jasota):

2016ko aurrekontuei Orain taldearen baietzaren arrazoiak.

Gure programan zeuden hainbat puntu jaso dira:

Lehenengoa Kale Garbiketa onartua izan dela. Urteetan eskatzen jardun garena aurten gauzatuko da.

Bat egiten dugu PSOEn irisgarritasun eta horniketa hobekuntzarekin, Antxiola eta Aritzaga kalea (saneamendua) alegia.

Eta EAJ alderdiarekin gure hauteskunde programan jasotako hainbat puntu adostu ditugulako.

Ondokoak.

- 1. kapitulua, jaitsi behar dela ezinbestekoa ikusten dugu.

Hasiera bezala bi zinegotziarena % 15 jaitea proposatzen dugu, 28 maila ingurutik 24ra pasako dira. Etorkizun hurbilean beste neurri batzuk hartu beharko dira (arrazionalizazioa...) Hemen aurrezten den dirua Antxiolako obrara gehituko genuke (irisgarritasuna+argiteria), jasota dagoen



kopuruak ez baitu obra guztia estaltzen bi faseak aldi berean egin ahal izateko. Era honetara posible izango da obra bakarrean gauzatzea.

- *Motondoren etorkizuna zehazteko bilera Eusko Jaurlaritzako teknikariekin, hauteskunde gertutasuna jakinda, udaberrian izan behar da.*
- *Kofradiaren egoera lehenbailehen bideratu, egin beharreko kontaktuak gauzatuz.*
- *Espigoiaren 2. fasea, argiteria eta oinezkotzea alegia, aklaratu proiektua erabaki zen garaitan zeudenekin bilera eginez.*
- *Kontu-hartzaile lanpostua izateko, ofizialki eskatuta dugun bezala, hasi RPTan txertatuz.*
- *Pertsonalaren inguruko batzorde monografikoa egin*
- *Gaztetxearen plan estrategikoa zehaztu gazteekin eta udaletxeko teknikariekin.*
- *Arrisku puntuak detektatu, zerrendatu, exekuzioa planifikatu eta konpondu.*

Guzti horiek eta jakina, hartuta dauden erabakiak (parke estalia, e.a.) gauzatzeko konpromisoa hartu denez, 2016ko aurrekontuei ORAIN TALDEAK BAIEZKOA EMAN DIE.

Ana Priede Merchán zinegotziak hartzen du hitza, PSE-EE-PSOeren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak aldeko botoa eman duela honako arrazoiengatik:

Bere talde politikoak zazpi proposamen egin zizkion alkatetzari eta guztiak onartu ziren. Proposamenak honako gaiei buruzkoak ziren:

- Antxiola kaleko irisgarritasun eta argiteria arazoak.
- Aritzaga kaleko eta Herriko Plazako saneamendu arazoak.
- Zaharren babeslekuaren partida 2.000 eurotan handitzea.
- Dieta eta joan-etorrietarako partida 1.500 eurotan gutxitzea eta diru-kopuru hori Gizarte Ongizateko partidara pasatzea.
- Herriko jarduera eta jaietan (adibidez, Erregeen kabalgatan) boluntarioek egingako lanetarako partida handitzea.
- Bide-heziketa, bidegorriak eta mugikortasunari buruzko ikastaro bat abian jartzea.



- Azterketa serio bat egitea, herriko kaleetako oinezkoentzako puntu beltzak (arriskutsuak) identifikatzeko.

Ana Priede zinegotziak, bukatzeko, eskerrak ematen dizkie EHBildu, Orain eta EAJ taldeei, 2016ko udal aurrekontuaren gaia lantzeko eman dioten laguntzagatik.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2016KO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERREDA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea Batzorde Informatzaileak 2016ko otsailaren 29an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**]:

1.- ONARTZEA Orioko Udalaren 2016ko plantilla organikoa eta lanpostu-zerrenda, iazko bera dena.

2.- ARGITARATZEA plantilla organikoa eta lanpostu zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, jendeak jakin dezan, Toki Araubidearen alorrean indarrean dauden legegeden testuategia onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Lege Dekretuaren 127. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Eusko Legebiltzarreko Legearen 16. artikuluan ezarritakoa betez.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN ETA ORIOKO UDALAREN ARTEAN SINATUKO DEN ELKARLANERAKO HITZARMENA, TRAFIKO-ZIGORRETARAKO PROZEDURARI DAGOZKION EGINTZAK BITARTEKO ELEKTRONIKOEN BIDEZ EGITEARI BURUZKOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2016ko otsailaren 22an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldua (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Campos (EAJ), Cotado (EAJ), Bello (EAJ), Uranga (Orain), Iparragirre (Orain) eta Priede (PSE-EE-PSOE), guztira **BEDERATZI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzio botoak: Emeterio Iribar (EHBildu), Lasa (EHBildu), Igoa (EHBildu) eta Ubegun (EHBildu), guztira **LAU ABSTENTZIO**]:



1.- ONARTZEA Euskadiko Autonomia Erkidegoko administrazioaren eta Orioko Udalaren artean sinatuko den elkarlanerako hitzarmena, trafiko-zigorretarako prozedurari dagozkion egintzak bitarteko elektronikoen bidez egiteari buruzkoa.

2.- AHALMENA EMATEA alkateari lankidetzaz hitzarmen hori sinatzeko, Orioko Udalaren izenean.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALEKO KONTRATAZIO-MAHAIA OSATZEKO PROPOSAMENA. MAHAIA 2019AN BUKATZEN DEN AGINTALDI HONETARAKO OSATUKO LITZATEKE, UDALBATZAR BERRIA OSATU BITARTEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea Batzorde Informatzaileak 2016ko otsailaren 22an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira HAMAHIRU BAIEZKO BOTO]:**

ONARTZEA Orioko Udaleko kontratazio-mahaia osatzea 2019an bukatzen den agintaldi honetarako, udalbatzar berria osatu bitartean; kontratazio-mahaia honela osatuko da:

- **Presidente:** Jose Angel Zaldúa Iparraguirre, alkatea. Ordezkoa: Angel del Hoyo Bravo (EAJ).
- **Mahaikidea:** Aitziber Campos Morey (EAJ). Ordezkoa: Angel del Hoyo Bravo (EAJ).
- **Mahaikidea:** Emeterio Iribar Sorazu (EH-BILDU). Ordezkoa: Aizpea Ubegun Manterola (EH-BILDU).
- **Mahaikidea:** Jose Angel Iparraguirre Alberdi (ORAIN). Ordezkoa: Miriam Uranga Egurza (ORAIN).
- **Mahaikidea:** Ana Priede Merchan (PSE-EE).
- **Mahaikidea:** Jon Carrera Jauregui, idazkari-kontu-hartzailea. Ordezkoa: Hura ordezkatzeko duen pertsona.
- **Mahaikidea:** Pilar Azurmendi Etxegarai, udal arkitektoa. Ordezkoa: Amaia Usandizaga Manterola udal arkitekto teknikoa.
- **Idazkaria:** Ibai Lertxundi Iribar, udal idazkaritzari atxikitako aholkulari juridikoa.



8.- BERRESTEA, EGOKI BADA, OTSAILAREN 26KO 71/2016 ALKATE-DEKRETUA, UDAL KANPINEKO 2016KO TARIFAK BIRIBILTZEA ONARTZEN DUENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Dekretuak honela dio, hitzez hitz, bere azalpenean:

PARTZELA TARIFAK

	Tarteko denboraldia			Goi denboraldia		
	BEZik gabe	BEZa barne	Biribilduta	BEZik gabe	BEZa barne	Biribilduta
Helduak	3,69	4,059	4,10	5,49	6,039	6,05
Haurrak	2,85	3,135	3,15	4,85	5,335	5,35
A partzela	20,55	22,605	22,60	34,04	37,444	37,45
B partzela	19,86	21,846	21,85	32,49	35,739	35,75
C partzela	19,17	21,087	21,10	30,94	34,034	34,05

BUNGALOW TARIFAK

	Behe denboraldia			Tarteko denboraldia		
	BEZik gabe	BEZa barne	Biribilduta	BEZik gabe	BEZa barne	Biribilduta
Logela 1	60,27	66,297	66,30	69,54	76,494	76,50
2 logela	74,18	81,598	81,60	88,09	96,899	96,90
3 logela	97,36	107,096	107,10	111,27	122,397	122,40
Aniztasun funtzionala	74,18	81,598	81,60	88,09	96,899	96,90



	Goi denboraldia		
	BEZik gabe	BEZa barne	Biribilduta
Logela 1	78,83	86,713	86,70
2 logela	102	112,20	112,20
3 logela	125,18	137,698	137,70
Aniztasun funtzionala	102	112,20	112,20

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

BERRESTEA otsailaren 26ko 71/2016 alkate-dekretua, udal kanpineko 2016ko tarifak biribiltzea onartzen duena.

9.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EUDELEK BIDALITAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONAL BAT, DATORREN MARTXOAREN 8KO EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNAREN OSPAKIZUNARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Adierazpen instituzionalak honela dio, hitzez hitz:

Udalerri eta Eskualdeetako Gobernuak bat egin dute Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunaren alde, European eta Munduan

Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseiluko (CCRE-CEMR) Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasuna Tokiko Bizitzan Sustatzeko Batzorde Iraunkorrek adierazi du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna funtsezko eskubidea eta oinarritzko balioa dela demokraziarentzat. Tokiko eta eskualdeetako gobernuak herritarrengandik gertuen dauden esferak dira, eta, hortaz, esku-hartzerako maila garrantzitsuak dira oraindik ere dirauten desberdintasunei aurre egiteko eta emakumeen eskubideak European eta mundu osoan sustatzeko.

Emakumeen Nazioarteko Egun honetan, 2016ko martxoaren 8an, tokiko eta eskualdeetako gobernuen ordezkariak helburu hauen inguruan elkartu dira:

- Gogoratzea demokrazia ezin eraiki daitekeela emakumerik gabe, eta, horrenbestez, beharrezkoak diren neurriak hartu behar direla, maila*



guztietan —tokikoa, eskualdekoa, estatukoa eta Europakoa—, emakumeek eta gizonek parte-hartze berdina izan dezaten erabakiak hartzeko prozesuetan;

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gure balioen eta europar gizartearen oinarritzko elementua dela bermatu dezatela eskatzea estatuetako gobernuei eta Europako instituzioei; beraz, elementu horrek agenda politikoaren erdigunean egon behar du, eta politika eta lege garrantzitsu guztietan txertatu behar da;*
- Berdintasunaren aldeko konpromiso formal bat hartu dezatela eskatzea Europako hiri eta eskualde guztiei, CCRE-CEMRk 2006an plazaratu eta dagoeneko 1.500 hiri eta eskualdek baino gehiagok sinatu duten Tokiko Bizitzan Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuna Lortzeko Europako Gutuna sinatzearen bidez;*
- Berdintasuna eskualde eta toki mailan sustatzeko neurri politiko konkretuak hartu ditzatela eskatzea Gutunaren sinatzaileei, CCRE-CEMRk Behatoki honen bidez eskura jartzen dituen tresnak erabiliz, estatu bakoitzean tokiko eta eskualdeetako gobernuei ematen zaizkien botereen arabera; eta horren inplementaziorako beharrezkoak diren finantza eta giza baliabideak eskaini ditzatela.*
- Emakumeek XXI. mendean pairatzen jarraitzen duten indarkeria salatzea: bizitza pribatuan zein publikoan emakumeen aurka zuzentzen den indarkeria forma guztiei aurre egin behar zaie eta ezabatu egin behar dira, honako forma hauek barne sartuta: emakumeen trafikoa, sexu-esplotazioa, etxeko indarkeria eta giza eskubideak urratzen dituzten gainerako ekintza guztiak;*
- Genero-indarkeria prebenitzeko eta horren biktimak babesteko eta laguntzeko politika eta lege bateratuak sortu ditzatela eskatzea estatuetako gobernuei eta EBko instituzioei. Emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta haren aurka borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena (Istanbulgo Hitzarmena) berretsi dezatela eskatzea gobernu nazionalai;*
- Kontuan hartzea gerra eta jazarpenetik ihes eginda gure hiri eta udalerrietara iristen diren errefuxiatuen artean dauden emakume eta haurren behar espezifikoak; beharrezko harrera eta arreta ziurtatzea, eta era guztietako indarkeria eta diskriminazioa eragozte;*
- Maila globalean elkarlanean aritzeko borondatea erakutsi dezatela, Nazio Batuen Erakundearen 2030eko Agendaren 5 Helburuak lortzeko begira,*



horrek xedetzat hartzen baitu emakumeen aurkako diskriminazio forma guztiak ezabatzea.

- *Genero berdintasunaren alde lan egitea (tokiko gobernuek), emakumezkoen egoera profesionala hobetzea babesteko zerbitzuen kontratatzaile eta hornitzaile diren aldetik, eta emakumezkoek ekonomiari egiten dioten ekarpena aitortzea.*

EHBildu talde politikoaren bozeramaile Emeterio Iribarrek hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio botoa emango duela, iruditzen zaielako adierazpen instituzional hori, aldez aurretik, batzorde informatzaile batean aztertu eta diktaminatu behar zela, Udaleko talde politikoek testuari ekarpenak egin ahal izateko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldia (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Campos (EAJ), Cotado (EAJ), Bello (EAJ) eta Priede (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Iribar (EHBildu), Lasa (EHBildu), Igoa (EHBildu), Ubegun (EHBildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **SEI ABSTENTZIO**]:

ONARTZEA martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Egunaren ospakizunari buruz EUDELe bidalitako adierazpen instituzionala, goian jasota dagoen bezalaxe.

Era berean, Udalbatzarrek EHBildu udal talde politikoak aurkeztutako mozio alternatiboaren berri jakiten du. Mozio alternatiboak honela dio, hitzez hitz:

Udalerri eta Eskualdeetako Gobernuek bat egin dute Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunaren alde, European eta Munduan

Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseiluko (CCRE-CEMR) Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasuna Tokiko Bizitzan Sustatzeko Batzorde Iraunkorrak adierazi du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna funtsezko eskubidea eta oinarritzko balioa dela demokraziarentzat. Tokiko eta eskualdeetako gobernuek herritarrengandik gertuen dauden esferak dira, eta, hortaz, esku-hartzerako maila garrantzitsuak dira oraindik ere dirauten desberdintasunei aurre egiteko eta emakumeen eskubideak European eta mundu osoan sustatzeko.

Emakumeen Nazioarteko Egun honetan, 2016ko martxoaren 8an, tokiko eta eskualdeetako gobernuen ordezkariak helburu hauen inguruan elkartu dira:

- *Gogoratzea demokrazia ezin eraiki daitekeela emakumerik gabe, eta, horrenbestez, beharrezkoak diren neurriak hartu behar direla, maila guztietan —tokikoa, eskualdekoa, estatukoa eta Europakoa—, emakumeek eta gizonek parte-hartze berdina izan dezaten **eraikuntza** eta erabakiak hartzeko prozesuetan.*



- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gure balioen eta europar gizartearen oinarritzko elementua dela bermatu dezatela eskatzea **Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari, estatuetako gobernuei eta Europako instituzioei**; beraz, elementu horrek agenda politikoaren erdigunean egon behar du, eta politika eta lege garrantzitsu guztietan txertatu behar da **4/2005 Berdintasun lege autonomikoa integralki garatua izan dadin behar adina diru-partida eta arau aktibatzeak hasita.**
- Berdintasunaren aldeko konpromiso formal bat hartu dezatela eskatzea Europako hiri eta eskualde guztiei, CCRE-CEMRk 2006an plazaratu eta dagoeneko 1.500 hiri eta eskualdek baino gehiagok sinatu duten Tokiko Bizitzan Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuna Lortzeko Europako Gutuna sinatzearen bidez.
- Berdintasuna eskualde eta toki mailan sustatzeko neurri politiko konkrituak hartu ditzatela eskatzea Gutunaren sinatzaileei, CCRE-CEMRk Behatoki honen bidez eskura jartzen dituen tresnak erabiliz, estatu bakoitzean tokiko eta eskualdeetako gobernuei ematen zaizkien botereen arabera; eta horren inplementaziorako beharrezkoak diren finantza eta giza baliabideak eskaini ditzatela. **Udal honen kasuan, garatu dezala berdintasun-plana/ordenantza 4/2005 Berdintasun lege autonomikoa bere kapitulu guztietan eta zehar lerrotasunez garatua izango delarik.**
- Emakumeek XXI. mendean pairatzen jarraitzen duten indarkeriari **aurre egitea, behar adina partida eta neurri zehatz abian jarritz**: bizitza pribatuan zein publikoan emakumeen aurka zuzentzen den indarkeria forma guztiei aurre egin behar zaie eta ezabatu egin behar dira, honako forma hauek barne sartuta: emakumeen trafikoa, sexu-esplotazioa, **indarkeria matxista** eta giza eskubideak urratzen dituzten gainerako ekintza guztiak.
- Genero-indarkeria prebenitzeko eta horren biktimak babesteko eta laguntzeko politika eta lege bateratuak sortu ditzatela eskatzea **Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari, estatuetako gobernuei eta EBko instituzioei**. Emakumeen aurkako indarkeria eta **indarkeria matxista** prebenitzeari eta haren aurka borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena (Istanbulgo Hitzarmena) berretsi dezatela eskatzea gobernu nazionaleri; **horregatik, Udal honek konpromisoa hartzen du herri mailan indarkeria matxistari aurre egiteko protokoloa aktibatzeko.**
- Kontuan hartzea gerra eta jazarpenetik ihes eginda gure hiri eta udalerrietara iristen diren errefuxiatuen artean dauden emakume eta haurren behar espezifikoak; beharrezko harrera eta arreta ziurtatzea, eta



*era guztietako indarkeria eta diskriminazioa eragozte; **horregatik, Udal honek konpromisoa hartzen du pertsona etorkin eta errefuxiatuei begirako harrera protokoloa aktibatzeke.***

- *Maila globalean elkarlanean aritzeko borondatea erakutsi dezatela, Nazio Batuen Erakundearen 2030eko Agendaren 5 Helburuak lortzeari begira, horrek xedetzat hartzen baitu emakumeen aurkako diskriminazio forma guztiak ezabatzea.*
- *Genero berdintasunaren alde lan egitea (tokiko gobernuek), emakumezkoen egoera profesionala hobetzea babesteko zerbitzuen kontratatzaile eta hornitzaile diren aldetik, eta emakumezkoek ekonomiari egiten dioten ekarpena aitortzea.*

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Iribar (EHBildu), Lasa (EHBildu), Igoa (EHBildu), Ubegun (EHBildu), Uranga (Orain), Iparragirre (Orain) eta Priede (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Zaldua (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Campos (EAJ), Cotado (EAJ) eta Bello (EAJ), guztira **SEI ABSTENTZIO**]:

ONARTZEA martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Egunaren ospakizunari buruzko mozio alternatiboa, goian jasota dagoen bezalaxe.

10.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO XALTZERAK ELKARTEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, UDALAREN ATXIKIMENDUA ESKATUZ EMAKUMEEKIN ETA HERRI KURDUAREKIN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak honela dio, hitzez hitz:

EKINTZARAKO DEIALDIA

Gure elkartasuna emakume eta herri kurduarekin

2016ko urtarrilaren Sanizan zen Pakize Nayır Fatma Uyar eta Séve Demir borrokalari eta burkideen hileta; gobernu turkiarren segurtasun indarrek hil zituzten urtarrilaren 4an Silopin.

Krimen honek Emakumeen Mundu Martxako kideok bereziki kolpatu gaitu. 2015ean krisiek eta gatazka armatuek ez digute eragotzi mundu guztian zehar gure 4. nazioarteko ekintza antolatzea, baita gatazkak zeuden lekuetan ere, landa eremuetan, periferietan, mendietan, erresistentzian diharduten emakumeak dauden eskualdeetan... Nazioarteko ekintzaren baitan, Karabana feminista europarra Turkian kokatuta dagoen lurralde kurduan hasi zen, bertako emakumeei



beren gorputz eta lurraldearekiko autonomia eta autodeterminazioa lortzeko borrokan babesa eta indarra emate aldera. Halaber, emakumeen erresistentziak sistema kapitalista, kolonial eta patriarkalaren aurka eraikitako alternatibak ezagutaraztea zen beste helburua.

2015eko martxoaren 6 eta 7an Turkia eta Siria arteko mugaren bi aldetako eskualdeko milaka emakume Nusaybinen bildu ziren (mugak banatutako hirian), eztabaida, kultur ekitaldi eta manifestazioek osatutako foro batean. Jendarte berri baten eraikuntzan eginkizun garrantzitsua duten emakumeek tokiko komunitateen autodefentsan garatzen dituzten esperientzien berri eman zieten elkarri.

Zoritxarrez, azken aldion turkiar gobernuaren eta herri kurduaren arteko gatazka berriro lehertu da, 2015eko ekainean izan ziren hauteskunde turkiarren ostean bake elkarrizketek porrot egin baitzuten. Gatazkaren fase berri honen ondorioa ehundaka zibilen heriotza (gehienbat emakume eta haurrak), ehunka zauritu eta milaka espetxeratu izan da. Udalbatzar herritar kurduak erabaki dute autodefentsa dela lurralde kurduko hirietan estatuko poliziak darabilen bortizkeriari aurre egiteko modua. Herritar gobernuetako 17 alkate espetxeratu dituzte, baita Sara Kaya ere, zeinak Nusaybinen hartu gintuen nazioarteko 4. ekintza zela eta.

Autogobernua aldarrikatu duten hiriei eraso egiten diete; etxeratze agindua ezarri zaie, baita argindarra, ura eta komunikazioak eten ere. Kanean dabilen edonor, haurra, adinekoa, haurdun edo gaixorik dagoen emakumea dela ere, frankotiratzaileek hil egiten dute. Zauriren bat jaso z gero, pertsonak ezin dute medikuarengana jo. Jendeak ezin ditu bere hildakoak ehortzi. Etxeratze aginduak herritarrek etxean bahituta mantentzen ditu, jatekorik ere ez dutela; honek osasun egoera larriagotzen du. Hartara, berezko abortuen kopurua gehitu egin da. Nusaybinen etxeratze agindua zazpi aldiz ezarri dute; azkenak, abenduaren 14an ezarri zenak, indarrean dirau oraindik.

Azkenik, indar polizialek hiru emakume ekintzaile kurdu hil zituzten joan den urtarrilaren 4an Silopin. Euretako bat, Séve Demin, Emakumeen Mundu Martxaren 4. nazioarteko ekintza hasteko ekitaldien koordinatzaile izan zen.

Ekintza:

Hilketa politiko hau salatu eta dei egiten diegu koordinakunde nazionalai turkiar enbaxaden aurrean protesta ekitaldiak egin ditzaten eta gutunak bidal diezazkieten hiru emakume ekintzaile kurduen hilketa gaitzesteko eta honakoak exijitzeko:

- Inpunitatearen amaiera eta krimenaren ardura dutenek justiziaren aurrean erantzun dezaten.*



ORIOKUDALA



- *Ez dezatela ekintzaile politiko, giza-eskubideen defendatzaile eta kazetari gehiago hil.*
- *Hiri kurduetan amai dadila etxeratze agindua*
- *Indar militar eta paramilitarrak erretira daitezela hiri kurduetatik.*
- *Su-etena eman dadila eta bake-elkarrizketak berriro hasi.*
- *Pertsonek, baina batez ere emakumeek, pairatzen dituzten abusu, irain eta tratatu txarrak amai daitezela.*

Martxan jarraituko dugu guztiok libre izan arte!

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Orioko Xaltxerak elkarteak aurkeztutako mozioa, Udalaren atxikimendua eskatuz emakumeekin eta herri kurduarekin, goian jasota dagoen bezalaxe.

Horrenbestez, udalbatzarrerera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,